



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko urtarrilaren 30a

8. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-26/MOC-00012. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita diabetesaren eguneko ospitalea sor dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (2. or.).
- 11-25/MOC-00170. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita osasun mentaleko zerbitzuak O-NOZetik entitate pribatuetara ateratzean kalitatezko zerbitzua berma dezan, lanpostuak mantentuz eta lan baldintza duinak ziurta dituzan. Osasun Batzordean izapidetzea (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-26/PES-00016. Galdera, Donejakue Bideari buruzko plan integral berriari buruzkoa. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egin du (4. or.).
- 11-26/PES-00017. Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuko giza baliabideei buruzkoa. María Teresa Nosti Izquierdo andreak egin du (4. or.).
- 11-26/PES-00018. Galdera, 2020ko urriaren 20an “Hiri Zirkularra” proiektuari buruz egindako bilerako solasaldiei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (6. or.).
- 11-26/PES-00019. Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko digestio-zerbitzuko koordinatzailearen postuari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (6. or.).
- 11-26/PES-00020. Galdera, Hezkuntza Departamentuan HP eta Google enpresen produktuak eta zerbitzuak erabiltzeari buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (7. or.).
- 11-26/PES-00021. Galdera, modu arautuan eskolatuta ez egoteagatik adingabeen balizko babesgabetasun eta zaurgarritasun egoerari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (8. or.).
- 11-26/PES-00022. Galdera, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko foru-lege proiektuari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (9. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-26/REPA-00007. Foru parlamentarietako 2025ean jasotako ordainsariak (10. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-26/MOC-00012. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita diabetesaren eguneko ospitalea sor dezan

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita diabetesaren eguneko ospitalea sor dezan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Gobernua diabetesaren eguneko ospitalea sor dezan premia-tzen duen honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Eskatzen dugu Osasun Batzordean egitea mozio hau betetzeari buruzko jarraipena.

Zioen azalpena

Nafarroan 45.464 pertsonak dute diabetesaren diagnostikoa; hau da, biztanleriaren % 6,7k.

Espainiako Endokrinologia eta Nutrizio Elkarteak, Espainiako Diabetes Federazioarekin lankidetzan, adostasun-dokumentu bat egin zuen, zeinean 15 gako ezartzen baitira diabetesaren arreta kliniko hobetzeko gure herrialdean, honako hauen laguntzarekin: Lehen Mailako Arretako Medikuen Espainiako Sozietatea, Espainiako Erizaintzako

Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusia, Mediku Orokorren eta Familiako Medikuen Espainiako Elkarteak eta Osasun Zuzendarien Espainiako Elkarteak.

Gako horietako zortzik berehalako arreta-modalitate berriak identifikatzean eta garatzean jartzen zuten arreta, diabetesaren eguneko ospitaleak bultzatuz eta sustatuz, diabetesa duten pertsonen arreta klinikoan irisgarritasun egokia eta aldakortasunaren murrizketa ziurtatzeko.

Diabetesaren eguneko ospitaleak funtsezkoak dira diabetesa dutenen arreta hobetzeko, eta arreta ambulatorio integrala, irisgarria eta paziente horien eskakizunetara egokitua eskaintzen dute konplexutasun bereziko egoeratan, bai eta berehalako sarbidea eta bi norabideko komunikazioa ere Larrialdietako, Lehen Mailako Arretako eta Ospitale Unitateetako zerbitzuekin.

Gainera, diabetesaren eguneko ospitaleei esker kostuak aurrezten dira; izan ere, beharrezkoak ez diren ospitaleratzeak eta saihesten diren beste konplikazio kroniko batzuek eragindako gastuak murrizten dira.

Egindako azterketek erakusten dutenez, diabetesa duten pertsonentzako eguneko ospitaleak arreta medikoa emateko modu eraginkorra eta efizientea izan daitezke, murriztu egiten baitira ospitaleratzeak, larrialdi-zerbitzuetara egiten diren bisitak eta berrospitaleratze-tasak, eta konponbide irisgarria eskaintzen dute urruneko eremuetan bizi diren pazienteentzat.

Nafarroan ez daukagu diabetesaren eguneko ospitalerik, baina pazienteak diabetesa duen paziente kronikoaren estrategiaren arabera tratatzen dira, eta diabetesaren kontsultan mediku endokrinologo batek eta erizain hezitzaile batek artatzen dituzte. Nabarmendu beharreko beste programa bat ere badugu: kubo urdineko pazienteak, erreferentziazko espezialista duena, paziente kronikoen estrategian artatutako paziente zehatzentzat.

Halaber, balioan jarri behar da diabetesa duten pazienteei ospitalean alta eman ondorengo jarraipen-programa.

Baina deskonpentsazioak eragindako konplexutasun bereziko egoerak daude, zeinetan eguneko ospitalea baita ospitaleratzearen alternatiba. Gainera, batzuetan, paziente horiek zuzenean larrialdieta-
ra bideratzen dituzte, eta ez kronikoen kontsultara, non, askotan, egoera konpon bailiteke. Beraz, eguneko ospitalea osagarria izanzen litzateke asistentziaren kalitatea hobetzeko, eskura dauden baliabideak optimizatzeko eta konplikazioak murrizteko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du:

Erabaki-proposamena:

Nafarroako Osasun Zerbitzuak –Osasunbideak– diabetesaren eguneko ospitale bat ezartzea komeni ote den aztertuko du, gaixotasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko, deskonpentsazioak eta konplikazioak prebenitzeko, epe luzerako kostuak aurrezteko, diabetesa zaintzeko osasun digitalaren berrikuntza sustatzeko eta pazienteak osasun-arretara iristea errazteko.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

11-25/MOC-00170. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita osasun mentaleko zerbitzuak O-NOZetik entitate pribatuetara ateratzean kalitatezko zerbitzua berma dezan, lanpostuak mantentzen dituzan eta lan baldintza duinak ziurta dituzan

OSASUN BATZORDEAN IZAPIDETZEA

2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Osasun Batzordean izapidetu dadin Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita osasun mentaleko zerbitzuak O-NOZetik entitate pribatuetara ateratzean kalita-

teko zerbitzua berma dezan, lanpostuak mantentzen dituzan eta lan baldintza duinak ziurta dituzan. Mozioa 2026ko urtarrilaren 16ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-26/PES-00016. Galdera, Donejakue Bideari buruzko plan integral berriari buruzkoa*FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak egindako galdera, Donejakue Bideari buruzko plan integral berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita

dagoen Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentu honetako Osoko Bilkurak, 2023ko azaroaren 2an egindako saioan, mozio hau onetsi zuen (11-23/MOC-00095): Nafarroako Parlamentuak Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen du Donejakue Bideari buruzko Plan Integral berri bat taxutu dezan, 2027ko Donejakue urtearen kariatara, urtearen aurreko nahiz ondoreneko programazioa eta antolamendua eginez, Bidea babesteko eta erromesari laguntza emateko programa bat barne.

Nafarroako Gobernuak noiz aurkeztuko du Donejakue Bideari buruzko Plan Integral berri hori, adierazitako mozioa betetzeko?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

11-26/PES-00017. Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuko giza baliabideei buruzkoa*MARÍA TERESA NOSTI IZQUIERDO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuko giza baliabideei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Osasun Zerbitzuko giza baliabideen plangintza, kudeaketa eta ebaluazio egokia egiteko, informazio osoa, homoginoa eta berezia eduki behar da dauden plantillei, egiaz lan egindako orduei eta lanaldi-mota eta ordainsari-modalitate desberdinei lotutako ordainsariei buruz.

Bereziki, osasun-sistema publikoaren antolaketan-efizientzia baloratu ahal izateko ezinbestekoa da aztertzea lan egindako ordu bakoitzeko kostua, absentzien estaldura-maila erreala, produktibitate aldakorren erabilera eta baimendutako plantillaren, dagoen plantillaren eta egiaz diharduen plantillaren arteko erlazioa.

Horregatik guztiagatik, eta Legebiltzarren kontrol-funtzioak behar bezala betetzeko eta 2025eko ekitaldi osoko baliabide publikoen kudeaketan gardentasuna bermatzeko, Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileen plantillei, absentismoari, lan egindako orduei eta ordainsariei buruzko datu objektibo, kuantifikagarri eta konparagarriak eskatuz, honako galdera idatzi hauek egiten dira:

Nafarroako Osasun Zerbitzuko kolektibo hauen zat: fakultatibo espezialistak, prestakuntzako fakultatiboak, beste fakultatibo batzuk, erizaintzako langileak, osasun-teknikariak, administrariak eta zeladoreak:

1. Zeintzuk dira, adierazitako kolektibo bakoitzerako eta 2025eko abenduaren 31eko egoera berariaz aipatuta, baimendutako plantillari, dagoen plantillari eta egiaz diharduen plantillari buruzko datuak, lotura-motaren arabera banakatuta (funtzionarioak, kontratatutako langileak, prestakuntza espezializatuko langileak edo beste modalitate batzuk), bai eta bete gabeko lanpostuen kopurua ere, kausak banakatuta (absentismoa, eszedent-

ziak, lanaldi-murrizketak, zerbitzu-eginkizunak edo beste administrazio-egoera batzuk), datu guztiak balio absolutuetan adierazita?

2. Zeintzuk izan ziren, adierazitako kolektibo bakoitzerako eta 2025eko ekitaldi osoari dagokionez, batez besteko absentismoa, batez besteko egun-kopuruaren eta plantillaren gaineko portzentajearen bidez adierazita, absentismo-egunen kopuru osoa, ordezkapen-kontratazioen bidez bete ziren egun horien kopurua eta portzentajea, bai eta dauden lanaldi-murrizketen kopurua ere, murrizketa-portzentajearen arabera banakatuta, eta datuak balio absolutuetan eta ehunekoetan adierazita?

3. Zein izan ziren, adierazitako kolektibo bakoitzerako eta 2025. urteari dagokionez, egindako ordu guztiak, honela banakatuta: lanaldi arrunta, presentzia fisikoko guardiak, guardia lokalizatuak, larunbat, igande eta jaiegunetako bisita-baimenak eta lanaldi kirurgikoaren luzapenak, bai eta kontzeptu horietako bakoitzari dagokion soldata-masa ere, berariaz adierazita, lanaldi kirurgikoaren luzapenen kasuan, zenbat ordu eta zer ehunekotan ez ziren ordaindu, bi ordutik beherako iraupena izateagatik?

4. Zeintzuk izan ziren, adierazitako kolektibo bakoitzerako eta 2025eko ekitaldiari dagokionez, egindako produktibitate aldakorreko orduen kopuru osoa, honako hauek berezita: itxaron-zerrendak murriztera bideratutako produktibitate aldakorra eta lanaldiak, txandak, bete gabeko plazak eta absentismo-egoerak estaltzera bideratutako produktibitate aldakorra, bai eta modalitate horietako bakoitzari dagokion soldata-masa ere?

5. Zein izan zen, adierazitako kolektibo bakoitzerako eta 2025eko ekitaldiari dagokionez, absentismoaren ordezkapenen eta estalduren ondoriozko kostu ekonomiko osoa, kontratazio bidezko estaldurari dagokion kostua eta produktibitate aldakorren bidezko estaldurari dagokiona berezita, zenbatekoak balio absolutuetan adierazita?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: M.^a Teresa Nosti Izquierdo

11-26/PES-00018. Galdera, 2020ko urriaren 20an “Hiri Zirkularra” proiektuari buruz egindako bilerako solasaldiei buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, 2020ko urriaren 20an “Hiri Zirkularra” proiektuari buruz egindako bilerako solasaldiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, Hiri Zirkularren proiektuari buruzko honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1. Zer hitz egin zuten zehazki Chivite lehendakariak, Antxon Alonsok eta Justo Vicente Pelegrinik

proiektu horri buruz 2020ko urriaren 20an egin zuten bileran?

2. Beste inor egon al zen bilera horretan, bertan egon zirela jada dakizkigunak eta Accionako zuzendaritzako beste batez gain?

3. Bilera hori egin eta astebetera, Chivite lehendakariak "Navarra Green" Trantsizio Ekologikorako Nafarroako Estrategia aurkeztu zuenean, 2020ko urriaren 27an, "Hiri Zirkularra" proiektua (Europako funtsen laguntza proiektu horretarako eskatu zen) 157,6 milioi euroko aurrekontuarekin ageri da, lehendik zeuden txostenetan jasotako 275,4 milioi euroen orde. Zergatik?

4. Zer ezaugarri zituen "Navarra Green" estrategian sartuta dagoen "Hiri Zirkularra" proiektuak, etxebizitza kopuruari eta gainerako ezaugarriei dagokienez? Aurreikusitako etxebizitza-kopurua hasieran planteatutako 800 etxebizitzak baino txikiagoa al zen?

5. Ba al dago “Hiri zirkularra” proiektuari buruzko txostenik 157,6 milioi euroko aurrekontuarekin?

6. Planteatzen al du Gobernuak "Hiri zirkularra" proiektua lankidetzara publiko-privatuaren bidez egi-tea, Europako funtsen laguntzarik ez izan arren?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-26/PES-00019. Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko digestio-zerbitzuko koordinatzailearen postuari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko digestio-zerbitzuko koordinatzailearen postuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Tuterako Reina Sofía Ospitaleko digestio-zerbitzuko koordinatzailearen postuak burutzarik al dauka atxikirik?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-26/PES-00020. Galdera, Hezkuntza Departamentuan HP eta Google enpresen produktuak eta zerbitzuak erabiltzeari buruzkoa

CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, Hezkuntza Departamentuan HP eta Google enpresen produktuak eta zerbitzuak erabiltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Iaz, 2025eko maiatzean, herritarren mobilizazioen eta Palestinako kausarekiko gizarte-ekimen solidarioen babesean, Nafarroako Gobernuak lehendakariak Israelgo Estatuari lotutako edo hare-

kin harremanak dituzten enpresekiko harreman ekonomiko-komertzialak berrikusteko asmoa zuela iragarri zuen.

HP eta Google dira Palestinako kausarekiko mugimendu solidarioak –zehazki, Palestinaren aldeko Irakasleen kolektiboak– adierazitako enpresetako bi, Palestinako herria jasaten ari den genozidio sionistari amaiera emateko tresna gisa Boikot, Desinbertsioak eta Zehapenak (BSD – BDZ) aldarrikatzen dituzten ekintzen barruan. Bi enpresa horiek merkaturatutako produktuek eta zerbitzuek eragin nabarmena dute administrazio publikoaren zati handi batean, oro har, eta hezkuntzaren eremuan, bereziki.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

1. Ba al dago Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuarentzat HP eta Google enpresen produktuen eta zerbitzuen kontratazioak, erosketak eta erabilerak dakarren urteko zenbateko ekonomikoaren kuantifikaziorik?

2. Hezkuntza Departamentuak neurririk aurreikusi al du HP eta Google enpresen produktu eta zerbitzuen kontratazioa, erosketak eta erabilera baztertzeko?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

11-26/PES-00021. Galdera, modu arautuan eskolatuta ez egoteagatik adingabeen balizko babesgabetasun eta zaurgarritasun egoerari buruzkoa

ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, modu arautuan eskolatuta ez egoteagatik adingabeen balizko babesgabetasun eta zaurgarritasun egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Eneka Maiz Ulaiarrek, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Abartzuzako Udalak (Estellerría) urte hasieran saldu zuen Anderazko ikastetxe eta barnetegia izandakoa, zeina 2019az geroztik hutsik baitzegoen. Errioxako Sociedad de Investigación y Estudios Generales (SEIG) inbertsio-taldeak enkante publiko bidez erosi zuen ikastetxe izandakoa, zeina Ahizpa Eskolapioek kudeatu baitzuten 97 urtez; hala dator jasota Abartzuzako Udalak 2024ko abenduaren 10ean onetsitako baldintza-agirian. Esleipena, Nafarroako Gobernuaren Kontratazio Atarian jasotzen denez, aurtengo otsailaren 8an egin zen; hasiera batean, barnetegi izandakorako hainbat erabilera hartu ziren gogoan: turismo-egoitza, zahar-etxea eta, are, etxebizitzak.

Deierriko eta Gesalazko haranetako bizilagunek diote ikastetxe izandakoa erosi zuen enpresaren atzean ultraeskuineko komunitate erlijioso zismatikoa bat dagoela, urteak daramatzana Estellerrian kokatuta, non hainbat eraikin erosi baititu. Entitate hori Maestro Ávila fundazioa litzateke. Instituzio hori guxtienez ere 2009ko ekainetik dago Estellerrian; izan ere, Estatuko Aldizkari Ofizialak (BOE) Fundazioen Erregistroan inskribatuta dagoela argitaratu zuen orduan, Argiñaoko etxebizitza batean hain zuzen ere, Gesalätzen.

Bestalde, gaur egun, Argiñaon ikastetxe bat dago Beangoetxea etxean, Maestro Ávila fundazioa izenez ezagutzen dena, eta, antza denez, erkidego horretako haurrak hartzen dituena.

EH Bildu talde parlamentarioak egindako galderari (PES-00408) Hezkuntza Departamentuak emandako erantzunaren arabera, "Fundación Maestro Ávila" ikastetxea ez dago erregistratuta Nafarroako Gobernuaren ikastetxeen sarean, eta, beraz, ikastetxeko ikasle-irakasleak ez daude EDUCA programan erregistratuta. Ez dago, ezta ere, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak EDUCA zentsurik. Horiek horrela, ez dute egiaztatu behar izan irakasleek beharrezko duten titulazioa, eta Hezkuntza Departamentuak ez ditu onetsi behar izan ikastetxeko instalazioak, programazioak, egutegia, ordutegia, eta araudian ezarritako beste zenbait baldintza. Dena dela, Hezkuntza Departamentuak jarduera horien berri du, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak egindako bisitaren ondorioz: bata 2016/2017ko ikasturtean, eta bestea 2020/2021eko ikasturtean.

Espainiako Konstituzioaren eta Hezkuntzaren Lege Organikoaren arabera, oinarriko irakaskuntza nahitaezkoa da. Eta Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzen dituen Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13. artikulua arabera, pertsona edo agintari orok, bereziki bere lanbide, ogibide edo jardueragatik adingabe baten arrisku- edo babesgabetasun-egoera posible bat detektatzen badu, agintari edo agente hurbilenei jakinaraziko die hori. Eta adingabe bat eskolatuta ez dagoela edo derrigorrezko epean ikastetxera justifikaziorik gabe eta ohikotasunez joaten ez dela dakien edozein pertsonak edo agintarik horren berri eman beharko die agintari publiko eskudunei, adingabe hori eskolatzeko behar diren neurriak har ditzaten.

Hezkuntza Departamentuak Gizarte Zerbitzuei edo Adingabeen Fiskaltzari jakinarazi al die adingabeen babesgabetasun- eta kalteberatasun-egoera bat egon litekeela, erregulartasunez eskolatuta ez egoteagatik, EDUCAn erregistratuta ez egoteagatik eta hezkuntza-erakundeen kontrolpean ez egoteagatik?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar

11-26/PES-00022. Galdera, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko foru-lege proiektuari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko foru-lege proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuako Lurralde Kohesiorako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

2026rako Urteko Araugintza Planaren arabera, Nafarroako Gobernuak lurralde antolamenduari eta hirigintzari buruzko foru-lege proiektua aurten onestea eta Nafarroako Parlamentura bidaltzea aurreikusten du.

Hori guztia ikusita, honako hau jakin nahi dut:

Administrazio-izapidetzearen zein fasetan dago lurralde antolamenduari eta hirigintzari buruzko foru-lege proiektua?

Nafarroako Gobernuak noizko aurreikusten du onestea foru-lege proiektu hori Gobernuaren bilkuran?

Nahitaezko zer txosten eta zer administrazio-edo kontsulta-izapide geratzen dira betetzeko, Nafarroako Gobernuak onetsi aurretik?

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 22an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-26/REPA-00007. Foru parlamentariak 2025ean jasotako ordainsariak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko urtarrilaren 26an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 17.4 artikulua ezartzen du Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar direla foru parlamentari guztiak aurreko urtean jasotako ordainsariak.

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak foru parlamentariak 2025. urtean zehar

jasotako ordainsari guztien zerrenda zehaztua igorri dio Mahaiari.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluaekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Izen-abizenak	Ordainsari finkoa ¹	Berlaratzeagatik ordainsaria	Kilometro-ordaina	Gauzako ordainsaria	Guztira
ÁLVAREZ ALONSO, MARTA	217,38	32.711,00	-	322,68	33.251,06
ALZÓRRIZ GOÑI, RAMÓN	64.803,95	-	-	322,68	65.126,63
ANSA ECHEGARAY, ANGEL	61.192,92	-	-	322,68	61.515,60
ARAIZ FLAMARIQUE, ADOLFO	66.861,80	-	4.494,00	322,68	71.678,48
ARANBURU BERGUA, ISABEL	61.192,92	-	-	322,68	61.515,60
ARZA PORRAS, JAVIER	61.192,92	-	-	322,68	61.515,60
ASIAIN TORRES, MIKEL	61.192,92	-	321,84	322,68	61.837,44
AZCONA MOLINET, PABLO	68.844,04	-	7.532,14	322,68	76.698,86
AZNAL SAGASTI, LAURA	68.844,04	-	409,92	322,68	69.576,64
BIURRUN URPEGUI, M ^a ARÁNZAZU	61.192,92	-	-	322,68	61.515,60
BUJANDA CIRAUQUI, MIGUEL	45.896,58	-	4.747,62	322,68	50.966,88
CHUECA CHUECA, M ^a OLGA	61.192,92	-	6.835,68	322,68	68.351,28
CRESPO LUNA, IBAI	61.192,92	-	3.326,40	322,68	64.842,00
ELIZALDE URMENETA, ANA	61.192,92	-	-	322,68	61.515,60
ESPARZA ABAURREA, JOSE JAVIER	68.844,04	-	-	322,68	69.166,72
ESPORRÍN LAS HERAS, MAITE	65.106,16	-	-	322,68	65.428,84
FABO CALERO, MARIO	61.045,59	-	3.171,42	322,68	64.539,69
GALLO SAN ROMÁN, OIHANA	45.169,78	190,50	2.098,08	242,01	47.700,37
GARBAYO BERDONCES, RAQUEL	61.192,92	-	7.910,10	322,68	69.425,70
GARCÍA JIMÉNEZ, JAVIER	68.844,04	-	8.405,10	322,68	77.571,82
GARCÍA MALO, M ^a ISABEL	61.192,92	-	171,90	322,68	61.687,50
GARRIDO SOLA, JOSE MIGUEL	61.192,92	-	-	322,68	61.515,60
GONZÁLEZ FELIPE, PEDRO JOSÉ	61.192,92	-	6.831,92	322,68	68.347,52
GONZÁLEZ MARTINEZ, DOMINGO	61.192,95	-	6.618,48	322,68	68.134,11
GUZMÁN PÉREZ, CARLOS	68.844,04	-	-	322,68	69.166,72
HUALDE IGLESIAS, UNAI	83.725,88	-	-	322,68	84.048,56
IBÁÑEZ PÉREZ, M ^a YOLANDA	68.844,04	-	8.640,12	322,68	77.806,84
IRIARTE LÓPEZ, IÑAKI	-	68,25	-	-	68,25
IZURDIAGA OSINAGA, ARANZAZU	15.008,10	-	368,60	80,67	15.457,37
JIMENEZ ARAGON, IRATI	61.192,92	-	120,80	322,68	61.636,40
JIMÉNEZ ROMÁN, EMILIO	67.284,85	-	4.956,84	322,68	72.564,37
JURÍO MACAYA, INMACULADA	19.237,47	-	1.278,90	107,56	20.623,93

Izen-abizenak	Ordainsari finkoa ¹	Beraratzeagatiko ordainsaria	Kilometro-ordaina	Gauzako ordainsaria	Guztira
LECUMBERRI URABAYEN, JAVIER	61.192,92	-	-	322,68	61.515,60
LÓPEZ CORDOBA, DANIEL	61.192,92	-	9.195,76	322,68	70.711,36
LÓPEZ MAÑERO, CRISTINA	61.192,92	-	-	322,68	61.515,60
LUCERO DOMINGUES, KEVIN	61.192,92	-	-	322,68	61.515,60
MAIZ ULAIAR, ENEKA	61.192,92	-	2.676,00	322,68	64.191,60
MENA BLASCO, CARLOS	61.192,92	-	-	322,68	61.515,60
MENDO GOÑI, OIHAN	61.019,82	-	1.761,12	322,68	63.103,62
NOSTI IZQUIERDO, M ^a TERESA	62.745,09	-	353,76	322,68	63.421,53
OLAVE BALLARENA, M ^a ISABEL	60.903,08	983,00	2.795,60	322,68	65.004,36
OLLO MARTINEZ, JAVIER	45.677,31	6.624,00	2.553,00	322,68	55.096,32
PARDO GARCÍA, URSULA	23.128,66	-	-	215,12	23.290,00
REGÚLEZ ÁLVAREZ, BLANCA ISABEL	61.192,92	-	3.730,32	322,68	65.245,92
ROYO ORTIN, IRENE	61.192,92	-	6.963,52	322,68	68.479,12
SAN MARTÍN RODRÍGUEZ, LETICIA	61.192,92	-	298,80	322,68	61.814,40
SÁNCHEZ DE MUNIAIN LACASIA, JUAN LUIS	68.844,04	-	30,96	322,68	69.197,68
SOLANA ARANA, M ^a RONCESVALLES	249,59	-	-	-	249,59
SOTO DIAZ DE CERIO, MIREN ITXASO	61.168,77	11,25	-	322,68	61.502,70
TRIGO OUBIÑA, FRANCISCO JAVIER	61.192,92	-	-	322,68	61.515,60
TXOPERENA MATXIKOTE, SEVERIANO	170,68	-	-	-	170,68
UNZU GARATE, AINHOA	68.844,04	-	991,36	322,68	70.158,08
VALDEMOROS ERRO, M ^a JESÚS	144,92	-	-	-	144,92
ZABALETA ARAMENDÍA, MIKEL	63.132,93	-	3.937,60	322,68	67.393,21
ZAPATERO SORIA, FELIX	61.192,92	-	5.355,32	322,68	66.870,92
GUZTIRA	2.993.273,	40.588,00	118.882,98	15.811,32	3.168.556,04

¹ 2024ko ekitaldiko atzerapenak barne hartzen ditu (Xehetasuna "2024ko atzerapenak")

2024ko atzerapenak

Izen-abizenak	Ordainsari finkoaren atzerapenak	Beraratzeagatiko ordainsarien atzerapenak
ÁLVAREZ ALONSO, MARTA	217,38	33,00
ALZÓRRIZ GOÑI, RAMÓN	326,08	-
ANSA ECHEGARAY, ANGEL	289,84	-
ARAIZ FLAMARIQUE, ADOLFO	289,84	-
ARANBURU BERGUA, ISABEL	289,84	-
ARZA PORRAS, JAVIER	289,84	-
ASIAIN TORRES, MIKEL	289,84	-
AZCONA MOLINET, PABLO	326,08	-
AZNAL SAGASTI, LAURA	326,08	-
BIURRUN URPEGUI, M ^a ARÁNZA	289,84	-
BUJANDA CIRAUQUI, MIGUEL	217,38	-
CHUECA CHUECA, M ^a OLGA	289,84	-
CRESPO LUNA, IBAI	289,84	-
ELIZALDE URMENETA, ANA	289,84	-
ESPARZA ABAURREA, JOSE JAVIER	326,08	-

ESPORRÍN LAS HERAS, MAITE	289,84	-
FABO CALERO, MARIO	142,51	-
GALLO SAN ROMÁN, OIHANA	-	-
GARBAYO BERDONCES, RAQUEL	289,84	-
GARCÍA JIMÉNEZ, JAVIER	326,08	-
GARCÍA MALO, M ^a ISABEL	289,84	-
GARRIDO SOLA, JOSE MIGUEL	289,84	-
GONZÁLEZ FELIPE, PEDRO JOSÉ	289,84	-
GONZÁLEZ MARTINEZ, DOMINGO	289,84	-
GUZMÁN PÉREZ, CARLOS	326,08	-
HUALDE IGLESIAS, UNAI	396,34	-
IBÁÑEZ PÉREZ, M ^a YOLANDA	326,08	-
IRIARTE LÓPEZ, IÑAKI	-	68,25
IZURDIAGA OSINAGA, ARANZAZU	289,84	-
JIMENEZ ARAGON, IRATI	289,84	-
JIMÉNEZ ROMÁN, EMILIO	289,84	-
JURÍO MACAYA, INMACULADA	289,84	-
LECUMBERRI URABAYEN, JAVIER	289,84	-
LÓPEZ CORDOBA, DANIEL	289,84	-
LÓPEZ MAÑERO, CRISTINA	289,84	-
LUCERO DOMINGUES, KEVIN	289,84	-
MAIZ ULAIAR, ENEKA	289,84	-
MENA BLASCO, CARLOS	289,84	-
MENDO GOÑI, OIHAN	116,74	-
NOSTI IZQUIERDO, M ^a TERESA	326,08	-
OLAVE BALLARENA, M ^a ISABEL	-	28,00
OLLO MARTINEZ, JAVIER	-	6,00
PARDO GARCÍA, URSULA	-	-
REGÚLEZ ÁLVAREZ, BLANCA ISABEL	289,84	-
ROYO ORTIN, IRENE	289,84	-
SAN MARTÍN RODRÍGUEZ, LETICIA	289,84	-
SÁNCHEZ DE MUNIAIN LACASIA, JUAN LUIS	326,08	-
SOLANA ARANA, M ^a RONCESVALLES	249,59	-
SOTO DIAZ DE CERIO, MIREN ITXASO	265,69	11,25
TRIGO OUBIÑA, FRANCISCO JAVIER	289,84	-
TXOPERENA MATXIKOTE, SEVERIANO	170,68	-
UNZU GARATE, AINHOA	326,08	-
VALDEMOROS ERRO, M ^a JESÚS	144,92	-
ZABALETA ARAMENDÍA, MIKEL	326,08	-
ZAPATERO SORIA, FELIX	289,84	-
GUZTIRA	14.152,67	146,50